



ERREENTERIAKO UDALA

***2015EKO ABENDUAREN 3IKO BALANTZEA ETA DATA
HORRETAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI
DAGOKION GALDU IRABAZIEN KONTUA, AZTERKETA
TXOSTEN BEREZIAREKIN BATERA***



AURKIBIDEA

2015EKO ABENDUAREN 31KO BALANTZEARI ETA DATA HORRETAN
AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION GALDU IRABAZIEN
KONTUARI BURUZKO AZTERKETA TXOSTEN BEREZIA 2

1. AZTERTUTAKO ONDARE KONTUAK	6
1.1. Balantzea (ikuskatu gabea)	6
1.2. Errenteriako Udalaren galdu-irabazien kontuak (ikuskatu gabeak)	7
2. AURKEZTEKO OINARRIAK ETA ARAUDIA	9
2.1. Sarrera	9
2.2. Ondorioak	9
3. AZALPEN ATALAK.....	12
3.1. Finantzaz bestelako ibilgetua.....	12
3.2. Finantza-ibilgetua	16
3.3. Funts propioak	18
3.4. Jasotako maileguak	20

ERANSKINA:

Ondare-kontuen azterketan aplikatutako prozedurak (ikuskatu gabeak)	21
--	----



ERREENTERIAKO UDALA

***2015EKO ABENDUAREN 31KO BALANTZEARI ETA DATA
HORRETAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI
DAGOKION GALDU IRABAZIEN KONTUARI BURUZKO
AZTERKETA TXOSTEN BEREZIA***



2015EKO ABENDUAREN 31KO BALANTZEARI ETA DATA HORRETAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION GALDU IRABAZIEN KONTUARI BURUZKO AZTERKETA TXOSTEN BEREZIA

ERRENTERRIAKO UDALEKO Kontu-hartzailletza Nagusiari:

I. SARRERA

ERRENTERRIAKO UDALAREN 2015eko abenduaren 31ko balantzea eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontua aztertu ditugu (1. atala). Ondare-kontu horiek 2015eko ekitaldiari dagokion ERRENTERRIAKO UDALAREN kontu orokorra osatzen dute.

Alkateari dagokio urteko kontu horiek formulatzearen ardura, aplikatzekoa den finantza-informazioko esparruaren arabera (2.1. atalean zehazten da esparru hori) eta, zehazki, kontabilitateko printzipioen eta irizpideen arabera. Horrez gain, alkateari dagokio urteko kontuak oker materialik gabe prestatzeko beharrezkotzat jotzen den barne-kontrolaren ardura.

II. LANAREN HELBURUA ETA IRISPIDEA:

ERRENTERRIAKO UDALAREN 2015eko abenduaren 31ko balantzea eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontua aztertu ditugu (1. atala eta eranskina). Ondare-kontu horiek 2015eko ekitaldiari dagokion ERRENTERRIAKO UDALAREN kontu orokorra osatzen dute, eta erakundeko lehendakariari dagokio horiek formulatzeko erantzukizuna. Azterketa bat, funtsean, erakundeko langileei galderak egitera eta kontabilitate-informazioari buruzko prozedura analitiko jakin batzuk (txosten honen eranskinean zehazten direnak) aplikatzera mugatzen da. Azterketa batek hedapen murrizta eta kontu-ikuskapen batena baino txikiagoa duenez gero, ez dugu adieraziko erantsitako 2015eko abenduaren 31ko balantzeari buruzko iritzirik, ezta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontuari buruzkorik ere (1. atala).

Aplikatzekoa den araudiari jarraikiz, balantzearen eta galdu-irabazien kontuaren kontu-sail bakoitzarekin 2015eko ekitaldiko zifrez gain aurreko ekitaldikoak ematen dira konparazio gisa. Gure azterketak 2015eko abenduaren 31ko balantzea eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontua baino ez ditu aztergai.



III. ONDORIOAK

Gure azterketaren emaitza gisa ez da agerian utzi erantsitako 2015eko abenduaren 31ko balantzean edo data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontuan (1. atala) aldaketa garrantzitsuak sartzeko beharra –hurrengo paragrafoetan deskribatuko ditugunak izan ezik– kontu horiek indarrean dagoen araudian bildutako Kontabilitate Printzipio Publikoei jarraikiz aurkeztearren. Prozedura gehigarriak aplikatu edo kontu-ikuskapen bat egin izan bagenu, beste aldaketa batzuk sartzeko beharra agerian utz genezakeen:


- Aztertu diren erantsitako kontuetako salbuespenen eraginez (1. atala). Salbuespen horiek 2015eko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioari buruzko *Kontu-ikuskapeneko txostenean* deskribatzen dira. Aipatutako txostena 2016ko maiatzaren 25ean aurkeztu zen.
- Udalak ez du ezarri prozedurarik ziurtatzeko, batetik, finantzaz bestelako ibilgetuaren gehitzei eta ateratzei dagozkien erregistroen egokitzapena eta, bestetik, aplikatutako balorazioaren zuzentasuna edo amortizazioen gabezia; hori dela-eta, ezin da egiaztatu 2014ko abenduaren 31ko balantzean jasotako ibilgetuko eta amortizazio metatuko saldoen zentzuzkotasuna (3.1. atala).
- Erantsita doan 2015eko abenduaren 31ko balantzearen ibilgetuari dagokion “Erabilera orokorrerako emandako azpiegitura, ondasunak eta ondarea” epigrafean, itxiera-data horretan guztiz amaituta dauden eta erabilera orokorrerako eman ez diren obra-proiektuak biltzen dira (3.1 atala).
- Guk dakigunez ez da egin ez atxikitako edo lagatako ondasunen inbentariarik, ezta atxikita edo lagata jasotako ondasunen inbentariarik ere; beraz, ezin dugu iritzi bat eman horiek 2015eko abenduaren 31ko balantzean duten islaren zentzuzkotasunari buruz (3.3. atala).
- Gure lanean zehar, Kontabilitate Printzipio Publikoen arabera, erantsita doazen Udalaren 2015eko abenduaren 31ko balantzean eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontuan bildu beharko lirakekeen doikuntza eta birsailkapen jakin batzuk agerian geratu dira. Ondoren adieraziko da doikuntza eta birsailkapen horien izaera eta erantsitako balantzearen hainbat ataletan duten eragina:



- Eurotan

Kontzeptua	Atala	Pasiboa	Pasiboa	
			Funts propioak	
			Aurreko ekitaldiko	2015eko emaitza
- Uraren eta estolda-zerbitzuaren erroldaren 2014ko 4. hiruhilekoari dagokion sarrera 2015eko aurrekontuan erregistratzea		-	796.967	(796.967)
- 2015/12/31n epemuga bete ez duten sortutako interesak erregistratzea		9.805	-	(9.805)
- 2014/12/31n sortutako interesak 2015eko aurrekontuko gastu gisa erregistratzea		-	(19.079)	19.079
GUZTIRA		9.805	777.888	(787.693)

Betean Auditoría, SLP



José Ignacio Miguel Salvador

2016ko maiatzaren 25a



ERREENTERIAKO UDALA

***2015EKO ABENDUAREN 31KO BALANTZEA ETA DATA
HORRETAN AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION
GALDU IRABAZIEN KONTUA (IKUSKATU GABEAK)***

**1. AZTERTUTAKO ONDARE KONTUAU
1.1. BALANTZEA (IKUSKATU GABEA)**

-Eurotan-

AKTIBOIA	2015/12/31	2014/12/31	PASIBOA	2015/12/31	2014/12/31
A) IBILGETUA			A) FUNTS PROPIOAK		
I) Erabilera orokorrerako emandako azpiegitura, ondasunak eta ondarea	179.630.165,59	168.488.547,70	Ondarea	167.842.904,98	160.211.470,45
Erabilera orokorrera zuzendutako lursail eta ondasun naturalak	26.529.113,18	25.033.445,16	Legatako ondarea	70.213.738,00	70.213.738,00
Erabilera orokorrera zuzendutako azpiegitura eta ondasunak	3.788.702,30	3.588.702,30	Erabilera orokorrerako emandako ondarea	(4.080.075,62)	(4.080.075,62)
Erabilera orokorrera zuzendutako bestelako ondarea	22.582.060,83	21.408.843,74	Itxitako ekitaldietako emaitza positiboak	(38.231.704,42)	(38.231.704,42)
II) Immateriala	158.350,05	35.899,12	Galdutako irabaziak (M/G)	132.309.512,49	124.505.387,68
Ikerketak eta garapeneko gastuak	4.762.096,83	4.499.172,28		7.631.434,53	7.804.124,81
Bestelako ibilgetu immateriala	106.521,69	45.401,74			
Amortizazioak	4.655.575,14	4.453.770,54			
III) Materiala			B) HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO SARRERAK	5.401.553,84	87.415,25
Lursail eta ondasun naturalak	133.333.199,00	122.735.831,92	Banatu beharreko bestelako sarrerak	5.401.553,84	87.415,25
Eraikuntzak	20.775.718,53	20.401.930,15			
Instalazio teknikoak eta makineria	120.954.508,33	109.921.981,61			
Bestelako instalazioak, tresneria eta altzariak	3.788.616,62	3.778.566,51			
Informazio-prozesu-erako tresneria, garraino-elementuak eta bestelako ibilgetu materiala	954.193,24	634.360,73			
Amortizazioak	6.835.159,55	6.717.646,51			
IV) Udalararen lurzorru-ondarea	(19.974.997,27)	(18.718.653,59)			
Eraikuntzak	14.859.782,22	14.859.782,22			
Beste zenbait	6.456.070,74	6.456.070,74			
V) Finantzaritza	8.403.711,48	8.403.711,48			
Sektore publikoko partaidetzak	145.974,36	1.360.316,12			
Epe luzerako finantza-inbertsioak	1.063.813,82	1.063.813,82			
Langileentzako epe luzerako kredituak	296.502,30	296.502,30			
Hornidurak	24.277,69	-			
(1.238.619,45)					
D) ZORDUNAK	6.236.655,00	5.242.791,05	E) EPE LABURRERAKO HARTZEKODUNAK	6.785.105,72	7.542.800,53
I) Zordunak	6.236.655,00	5.242.791,05	I) Hartzekodunak	3.040.238,16	3.703.514,87
Aitoritutako eskubideen ondoriozko zordunak. Aurtengo ekitaldia	5.407.185,26	5.200.387,19	Aitoritutako obligazioen ondoriozko hartzekodunak. Aurtengo ekitaldia	2.891.838,78	3.557.088,23
Aitoritutako eskubideen ondoriozko zordunak. Itxitako ekitaldiak	2.151.324,19	2.049.643,03	Sarreraren itzulerearen ondoriozko hartzekodunak	111.628,63	111.628,63
Hainbat zordun	837.882,59	87.450,00	BEZaren ondoriozko hartzekodunak	36.770,75	34.798,01
Erakunde publiko zordunak	400,00	19.949,92	Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak	-	-
Hornidurak	(2.160.137,04)	(2.114.639,09)			
E) FINANTZA KONTUAU	5.771.611,97	4.368.652,66	II) Erakunde publiko hartzekodunak	785.166,80	700.537,86
I) Aldi baterako finantza-inbertsioak	4.809.767,33	2.493.845,02	VI) Kreditu-eragiketen ondoriozko erakunde publikoekiko zorrak	63.800,00	-
Langileentzako kredituak	(41.232,67)	(6.154,98)	VII) Bestelako zorrak	2.895.900,76	3.138.747,80
Emandako kredituak	4.850.000,00	2.500.000,00	Bestelako zorrak	2.460.000,86	2.577.350,00
Epe luzera eratutako fidantzak eta kredituak	1.000,00	-	Jasotako fidantzak eta gordailuak	435.899,90	561.397,80
II) Bankukoak ez diren beste zenbait kontu	613,15	613,15			
Aplikatzeko dauden ordainketak	613,15	613,15			
III) Diruzaintza	961.231,49	1.874.194,49	PASIBOA GUZTIRA	191.638.432,56	178.099.991,41
	191.638.432,56	178.099.991,41			

1.2. GALDU IRABAZIEN KONTUA (IKUSKATU GABEA)

-Eurotan-

ZORRA	2015/12/31	2014/12/31	HARTZEKOAK	2015/12/31	2014/12/31
A) GASTUAK			B) SARRERAK		
Langile-gastuak	15.198.079,46	15.222.102,77	Negozio-zifraren zenbateko garbia	6.229.309,53	5.671.846,38
a) Soldatak eta alokairuak	11.769.421,78	11.947.545,76	a) Salmenta garbiak	15.724,74	9.724,16
b) Gizarte-kargak	3.428.657,68	3.274.557,01	b) Zerbitzuzintzak	6.213.584,79	5.662.122,22
Ibilgetuaren amortizazioetarako zuzkidurak	169.404,38	-	Zergak	10.172.311,68	9.929.782,04
Trafiko-horniduren aldakuntza	45.497,95	181.325,79	a) Zuzenekoak	9.915.954,53	9.544.593,80
b) Horniduren aldakuntza eta kreditu kobraezinen galerak	45.497,95	181.325,79	b) Zeharkakoak	256.357,15	385.188,24
Bestelako ustiapen-gastuak	22.846.905,31	22.791.973,84	Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	27.878.977,75	27.828.091,92
a) Kanpoko zerbitzuak	16.228.392,16	15.382.084,48	Kudeaketa arrunteko bestelako sarrerak	3.519.172,24	3.243.025,79
c) Emandako transferentziak eta diru-laguntzak	6.618.513,15	7.409.889,36	a) Kudeaketa-sarrera osagarriak	3.519.172,24	3.243.025,79
I. USTIAPEN MOZKINAK	9.539.884,10	8.477.343,73	I. USTIAPEN GALERAK	-	-
Finantza-gastuak eta gastu parekatuak	321.963,57	206.125,91	Kapital-partaidetzako sarrerak	-	6.406,95
a) Interesen ondoriozkoak	321.963,57	206.125,91	Balore negoziagarrien eta kredituen sarrerak	15.189,73	15.188,13
Finantza-inbertsioen horniduren aldakuntzak	1.238.619,45	-	a) Interesen ondoriozkoak	15.189,73	15.188,13
II. FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK	-	-	II. FINANTZA EMAITZA NEGATIBOAK	1.545.393,29	104.530,83
IV. OHIKO JARDUEREN MOZKINAK	7.994.490,81	8.292.812,90	IV. OHIKO JARDUEREN GALERAK	-	-
Aurreko ekitaldietako gastuak eta galerak	308.295,54	328.089,86	Aurreko ekitaldietako sarrerak eta mozkinak	-	-
V. AURREKO EKITALDIETAKO MOZKINAK	-	-	V. AURREKO EKITALDIETAKO GALERAK	308.295,54	328.089,86
Ohiz kanpoko galerak	54.102,50	160.000,00	Ohiz kanpoko mozkinak	(658,24)	(598,23)
VI. OHIZ KANPOKO EMAITZA POSITIBOAK	-	-	VI. OHIZ KANPOKO EMAITZA NEGATIBOAK	54.760,74	160.598,23
EKITALDIKO EMAITZA (MOZKINA)	7.631.434,53	7.804.124,81	EKITALDIKO EMAITZA (GALERA)	-	-



ERREENTERIAKO UDALA

***2015EKO ABENDUAREN 3IKO BALANTZEAREN ETA DATA
HORRETAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI
DAGOKION GALDU IRABAZIEN KONTUAREN (IKUSKATU
GABEAK) AZALPEN ATALAK ETA BESTELAKO OHARRAK***



2. AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1. SARRERA

Errenteria Donostialdean dago, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, eta zuzenbideko 39.276 biztanle dauzka 2015eko urtarrilaren 1eko datuen arabera.

ERRENTERIAKO UDALAREN kontu orokorra osatzen dute, 2015eko ekitaldiari dagokiona, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62. artikulua galdatzen dituen udalaren beraren, berezko nortasun juridikoa duten udalaren mendeko “ADINDUEN EGOITZAREN UDAL PATRONATUA”, “ERRENTERIA MUSIKAL PATRONATUA” eta “UDAL KIROL PATRONATUA” erakunde autonomoen eta “ERRENTERIA GARATUZ UDAL SOZIJETATEA - ERRENTERIA GARATUZ SOCIEDAD MUNICIPAL, SA” mendeko sozietate publikoaren aurrekontu- eta ondare-izaerako kontuek eta egoera-orriek.

Erantsitako ondare-kontuak (1. atala), 2015eko ekitaldiari dagokion Errenteriako Udalaren kontu orokorra osatzen dutenak, udalaren kontabilitate-erregistroak abiapuntutzat hartuta prestatu dira.

Txosten honen datan, Udalbatzak onartu gabe zuen adierazitako kontu orokorra. Hala ere, ez dirudi onarpenaren ondorioz aldaketak izango direnik.

2.2. APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

2015eko ekitaldian, Gipuzkoako toki-mailako sektore publikoa araupetzen duen araudiak zuzendu du Udala:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena.
- Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen lehen, zortzigarren eta hemeretzigarren xedapen gehigarriak.
- 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5koa, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen.



- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duena.
- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
- 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5koa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 100/2004 Foru Dekretua, abenduaren 21koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egitura eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onartzen dituena.
- 3/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Lege Orokorren osagarria den abenduaren 13ko 5/2001 Lege Organikoa aldatzen duena.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, Toki-erakundeetan aplikatzeari dagokionez, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzeko araudia onartzen duena.
- 141/2007 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, toki entitateen Kontabilitate Instrukzioa eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorren hainbat xedapenen aldaketa onartzen dituena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzkoa.
- Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluaren 2014ko azaroaren 18ko erabakia (Gipuzkoako toki-erakundeek 2015. urteko aurrekontuak prestatzeko, onartzeko eta gauzatzeko bete beharko duten jarraibidea).
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30koa, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergena.



- 1/2015 Foru Dekretu-Araua, ekainaren 30ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehaztekoa.
- 15/1994 Foru Araua, azaroaren 23koa, Udal Finantzaketarako Foru Fondoa arautzen duena.



3. AZALPEN ATALAK

3.1. FINANTZAZ BESTELAKO IBILGETUA

Balantzearen epigrafeka sailkatuta, hona hemen finantzaz bestelako ibilgetua osatzen duten saldoen laburpena:

-Eurotan-

Finantzaz bestelako ibilgetua	2015/12/31	2014/12/31
Erabilera orokorrerako emandako azpiegitura, ondasunak eta ondarea	26.529.113,18	25.033.445,16
Immateriala, garbia	4.762.096,83	4.499.172,28
Materiala, garbia	133.333.199,00	122.735.831,92
Udalaren lurzoru-ondarea	14.859.782,22	14.859.782,22
Finantzaz bestelako ibilgetua guztira	179.484.191,23	167.128.231,58

1993an, orduan eskuratuta edo lehenago eraikita zegoen ibilgetua balantzean txertatzeko xedez, udal-ibilgetuaren inbentarioa eta balorazioa egiteko mandatua eman zuen Udalak, nahiz eta balorazio-arauek ondasun horiek baloratu ahal izateko eskuratzeprezioa edo produkzio-kostua erabiltzea nahitaezkoa dela adierazten duten. Lan horren emaitzazko amortizazioen udal-inbentario garbia, 1993ko urtarrilaren 1ean, 20.140 mila eurokoa zen. Udalbatzak ez zuen inbentario hori onartu.

2000ko ekitaldian inbentario hori eguneratzen hasi ziren. Udalbatzak, 2002ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, inbentario horren 2001eko abenduaren 31ko eguneratzea onartzeko erabakia hartu zuen. Alabaina, inbentarioa osatzen zuten ondasun gehienak baloratu gabe zeuden. Ildo horretan, 2003ko ekitaldian, ondasun horiek baloratzeko kontratatutako enpresa batek egindako lanak amaitu ziren. Balorazio horren emaitzazko 2002ko abenduaren 31ko zenbatekoa, amortizaziorik gabe, 124.996 mila eurokoa zen. Zuzenketa hori 2003ko apirilaren 25eko erabakiaren bidez onartu zuen Udalbatzak.

Gainera, 2002ko maiatzaren 28an onartutako inbentarioak —2003ko abenduaren 31n egin zen horri buruzko balorazioa ez zen udalbatza bidez onartu— ez ditu barnean hartu udal-eraikinen edukia osatzen duten ondasunak.

Alabaina, ezin izan ditugu eskuratu 2015eko abenduaren 31ko ondasunen udal-inbentarioko balioak; dena den, Inbentarioak eta kontabilitateak erregistratutako udal-ibilgetuaren balioak eguneratuta eta bateratuta mantentzea bermatuko duten Kontuhartzaitza eta Ondare Sailen arteko prozedura koordinaturik ez dagoenez, egoerabalantzean jasotako saldoen eta Ondasunen Udal Inbentariotik eskuratutako balioen



arteko aurreko ekitalditan antzemandako diferentzia azpimarragarriek hala jarraituko lukete azterketaren egungo datan.

Zehazki, Ondare Sailak egin ohi dituen inbentarioaren eguneratzeak udalaren lurzoru-ondareari egindako diruzkoak ez diren ekarpenekin erlazionatuta daude. Horren ondorioz, ohikoa da aurrekontu-mugimendurik ez biltzea inbentario horretan. Halaber, baloratu ez diren hainbat elementu daude inbentarioan.

Esate baterako, aurreko ekitaldietan ikusi genuen udal-inbentario horrek ez zituela barnean hartzen udal-titulartasuneko eraikinetan sartuta zeuden elementuak, hala nola lanabesak, altzariak, makineria edo informazio-prozesuetarako tresneria, ezta udalaren ur-sarea ere.

Aldiz, egoera-balantzeko "Ibilgetua" kapituluko epigrafeen gehikuntza edo murrizketa, funtsean, dagozkion aurrekontu-sailetan aitortutako obligazioen eta eskubideen ondoriozkoa da.

Era berean, eta arlo horretan kontabilizatutako 2014ko ekitaldiko mugimenduen berrikuspenean egindako lanaren ondorioz, honako gertakari hauek antzeman ditugu (ikus *Azterketari buruzko txostena*):

- Erantsitako balantzeko "Erabilera orokorrerako emandako azpiegitura, ondasunak eta ondarea" kontuetan, erabat amaituta dauden eta, ondorioz, erabilera orokorrerako eman behar ziren obra-proiektuak daude.

Dena den, eman diguten informazioa ez da behar adinakoa izan aipatutako beste azpiegitura guztien zenbatekoa zein den eta 2015eko abenduaren 31n horietako zein erretiratu beharko liratekeen jakiteko; epigrafe horren saldoa murriztearren eta, zenbateko berarekin, "Erabilera orokorrerako emandako ondarea" epigrafea gehitzearren.

- 2015eko ekitaldiaren itxieran, ez dakigu zer zenbateko egotzi beharko zitzaiokeen "Udalaren lurzoru-ondarea" epigrafeari aurreko ekitaldietan gauzatu eta epigrafe horretan birsailkatzeko dauden era horretako ondasunei dagokienez.
- Azkenik, 2015eko ekitaldi honetan, ikusi dugu zenbait kasutan "Inbertsio errealak" kapituluko aurrekontu-konzeptuak eta ibilgetu materialeko kontuak ez datozela bat. Bat ez etortze horien artean, duten garrantziagatik honako hauek nabarmentzen dira:
 - Ondare-kontabilitatean "Makineriatzat" hartzea herriko argien sarea berrezartzeko inbertsioak, 26.627 euroko zenbatekoaz.



- Ondare-kontabilitatean “Bestelako eraikuntzatat” hartzea seinaleztatze publikoko lanetan egindako inbertsioak, 39.896 euroko zenbatekoaz.
- Udalbatzak, 2014ko abenduaren 18ko bilkuran, aurreko ekitaldietan Errenteria Garatuz, SA udal-sozietateari egindako kudeaketa-aginduak Udalak bere gain hartzea erabaki zuen.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorioz, 2015eko ekitaldian Udalari eskualdatu dizkiote sozietatearen balantzean sartutako ondasun hauek: *Eraikuntzako inbertsioak*, 6.776.175 euroko zenbatekoaz, eta *Lursail eta ondasun naturalak*, 373.788 euroko zenbatekoaz.

Eraikuntzako inbertsioak honako garaje hauen kostu-balioek osatzen dituzte:

- Don Bosco garajea, 2.493.513 euroko zenbatekoaz.
- Markola garajea, 997.086 euroko zenbatekoaz.
- Alaberga garajea, 1.443.075 euroko zenbatekoaz.
- Galtzaraborda garajeak, 1.842.501 euroko zenbatekoaz.

Ondasun horien amortizazio metatua, hori ere Udalaren balantzean erregistratua, 1.086.939 eurokoa izan da.

Eskualdatutako *Lursail eta ondasun naturalen* balioa Galtzaraborda Parkeko eta Urdaburuko garajeak eraikitzeke partzelari dagokiona da.

- Erantsitako egoera-orriek ez dute inongo zenbatekorik jasotzen ez 2015eko ekitaldiari ez aurrekoei dagokien amortizaziorako zuzkiduraren kontzeptupean, Udalaren berezko ondasunen hasierako inbentarioan sartutakoa izan ezik. Zuzkitu dira ekitaldiaren itxieran, ordea, arestian aipatutako garajeei dagozkien urteko amortizazioak, 169.404 euroko zenbatekoaz.

Halaber, 2015eko ekitaldiaren itxieran hainbat zuzenketa egin dira ekitaldiko gehikuntzen gainean, baita aurreko ekitaldietatik datozen saldoen zuzenketak egin ere, kontuen arteko intsuldaketak funtsean. Udalak egin dituen intsuldaketa adierazgarrienak honako hauek izan dira:

- Beraungo igerilekuetan egindako lanak, “*Uneko eraikuntzetako inbertsioak*” kontutik “*Kirol-inbertsioak*” kontura, 978.196 euroko zenbatekoaz.



- Kapitain Etxean egindako obrak, “*Uneko eraikuntzetako inbertsioak*” kontutik “*Merkataritza-inbertsioak*” kontura, 477.480 euroko zenbatekoaz.
- Lekuona eraikinean egindako hainbat lanen ondoriozko obra-ziurtagiriak, “*Merkataritza-inbertsioak*” kontutik “*Uneko eraikuntzetako inbertsioak*” kontura, 1.671.434 euroko zenbatekoaz.
- Kaputxinoetako igerilekuetako obraren zuzendaritza eta ziurtagiriak, “*Industria-inbertsioak*” kontutik “*Kirol-inbertsioak*” kontura, 179.029 euroko zenbatekoaz.

Arloko kontuetan udal-ibilgetua behar bezala erregistratzearen garrantzia –balantzearen “Funts propioak” kapituluaren guztizkoari dagokionez–, bertan erregistratutako saldoen eragin adierazgarrian oinarritzen da. Kapitulua horren 2015eko abenduaren 31ko saldoa 167.842.905 eurokoa da, xehatutako finantzaz bestelako ibilgetuaren zenbatekoa baino txikiagoa.

2015eko abenduaren 31n indarrean zeuden aseguru-polizek 100 milioi euroko estaldura aintzat hartzen dute, gutxi gorabehera, eraikin eta instalazioetako sute-arriskurako (edukitzailea gehi edukia).

Aurreko paragrafoen arabera, honako hau **gomendatzen dugu**:

⇒ ***Ondasunen Udal Inbentarioa 2015eko ekitaldiaren itxieran eguneratzea.***

⇒ ***Ondasunen Udal Inbentarioan ondasun eta eskubide guztiak sartzea, horien izaera edo eskuratzeko era dena dela ere.***

⇒ ***Balantzeko “Ibilgetua” kapituluko kontabilitate-kontuei dagozkien saldoekin osatutako eta eguneratutako Udal Inbentarioaren emaitzazko zenbatekoak berdinkatzea.***

⇒ ***Erabilera orokorrerako emateak kontabilizatzeko prozedura formalizatzea:***

✓ ***Ekitaldiaren amaieran, dagokion sail teknikoari edo Idazkaritzari eskatuko zaio ekitaldian egindako azpiegituren osotasunaren edo aurreko ekitaldietako azpiegituren osotasunaren (ixten den ekitaldian eman direnak) ziurtagiria.***

✓ ***Kontabilitateak emandako informazioarekin, erabilera orokorrerako entrega hori baloratzea, eta kontabilitate-idazpena egitea “109. Erabilera***



orokorrerako emandako ondarea” ondare-kontua kontrapartida gisa erabilia.

⇒ *Ibilgetuko ondasunen salmentan lortutako emaitza kontabilizatzea, sisteman zuzeneko idazpen hau eginda (kontabilitate-eragiketak):*

- ✓ *Saldutako ondasunaren kontabilitateko baja erregistratzeko: kostuaren eta amortizazio metatuaren hurrenez hurrengo kontuak erregistratutako zenbatekoen arabera ordaintzea eta zorduntzea.*
- ✓ *Salmentako balioaren eta kontabilitate-balio garbiaren arteko diferentziarako, ondare-gastu edo -sarrera bat erregistratu beharko da:*
 - *Ondare-gastua: Besterendutako ondasunaren salmenta-balioa haren kontabilitate-balio garbia baino txikiagoa dela esan nahi du. Alde hori jasoko duen gastuen kontua honako hau izango da: 671 “Ibilgetu materialaren ondoriozko galerak”.*
 - *Ondare-sarrera: Besterendutako ondasunaren salmenta-balioa haren kontabilitate-balio garbia baino handiagoa dela esan nahi du. Alde hori jasoko duen gastuen kontua honako hau izango da: 771 “Ibilgetu materialaren ondoriozko mozkinak”.*

3.2. FINANTZA IBILGETUA

Udalak hainbat merkataritza-sozietatetan dituen partaidetzei esleitutako eta balantzearen epigrafe honetan kontabilizatutako balioen laburpena honako hau da:



-Eurotan-

Sektore publikoko partaidetzak	Partaidetza	2015/12/31	2014/12/31	Kontabilitate-balio garbia (KBG)	Hornidura
Central Hidroeléctrica de Rentería, SA	% 50	117.877,00	117.877,00	69.318,25	48.558,75
Errenteria Garatuz, SA (lehen Txirrita Maleo, SA)	% 100	1.063.813,82	1.063.813,82	-	1.063.813,82
Murias Center 4, SA (lehen Errenteria Garatuz, SA)	% 10	163.600,00	163.600,00	37.353,30	126.246,70
Oarsoaldea, SA	% 25	15.025,30	15.025,30	903.019,80	-
Sektore publikoko partaidetzak guztira		1.360.316,12	1.360.316,12	1.009.691,35	1.238.619,27

Central Hidroeléctrica de Rentería, SA sozietatea Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) batera eratu zen.

Udalak (% 50) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (% 50) 1992. urtean "Txirrita-Maleo, SA" sozietatea eratu zuten, Errenteriako Txirrita-Maleo izeneko industrialdeko industria-lurzorua kudeatzea helburu zuena.

2001eko ekitaldian, Gipuzkoako Foru Aldundiak udalari saldu zizkion bere akzioak, 2001eko urriaren 19an eskrituratutako egintzan, 53.562 euroko prezioan. Zenbateko hori ekitaldi horretan bertan ordaindu zen eta, une horretatik aurrera, udala izan da sozietatearen titular bakarra.

2007ko urtarrilaren 11n eskritura publikoan jaso zen sozietatearen administrazio-kontseiluak hartu zuen erabakia, sozietatearen izena aldatzekoa, eta handik aurrera "Errenteria Garatuz Udal Sozietatea - Errenteria Garatuz Sociedad Municipal, SA" izan da.

Adierazitako sozietatearen Batzar Nagusiak, 2010eko martxoaren 26an egindako bilkuran, kapital soziala 860.000 euro zabaltzeko erabakia hartu zuen. Udalak, 2010eko apirilaren 26ko osoko bilkuran, sozietatearen akzio-guztiak zenbateko horrekin harpidetzea erabaki zuen eta kopuru hori diru-ekarpen bidez ordaindu zuen.

Udalbatzak, 2014ko abenduaren 18ko bilkuran, sozietate horri egindako kudeaketa-aginduak Udalak bere gain hartzea erabaki zuen. Dena den, sozietateak bere estatutuetan adierazten den xedearekin jarraitzen du, baina jarduerarik gabe.

1993. urtean, Pasaia, Oiartzun, Lezo eta Errenteriako udalek zati berdinetan eratu zuten "Oarsoaldea, SA" sozietatea. Eskualdearen garapen sozioekonomikoa lortzera eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzera zuzendutako eginkizunak eta jarduketak gauzatzea da sozietatearen helburua.



Bestalde, 1999. urtean udalak “Errenteria Garatuz Udal Sozietatea - Errenteria Garatuz Sociedad Municipal, SA” sozietatea eratu zuen, gaur egun “Murias Center 4, SA” deritzona, kapital soziala osatzen zuten 60.101 euroak oso-osorik ordainduta.

Errenteriaren garapen ekonomiko integralean zuzenean nahiz zeharka laguntzen duten edo lagun dezaketen jarduera ekonomiko edo zerbitzu publiko guztiak sustatzea eta garatzea da sozietatearen helburua.

Adierazitako sozietatearen Batzar Nagusiak, 2004ko otsailaren 18an egindako bilkuran, kapital soziala 1.575.850 euro zabaltzeko erabakia hartu zuen. Udalak, 2004ko martxoaren 26ko osoko bilkuran, sozietatearen *104.350 euroko balioko akzioak harpidetzeko erabakia hartu zuen. Horren ordainez, hainbat azalera- eta gozamen-eskubide eman zituen 50 urteko eperako.*

Horren ondorioz, Udalak 2005ean sozietate horretako partaidetzaren gehikuntza erregistratu zuen, eta lagatako eskubideen ondorioz “Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak” epigrafea handitu zuen. Epigrafe horren saldoa modu uniformearen eskualdatu beharko litzateke ekitaldiaren emaitzara adierazitako aldi horretan; alabaina, 2015eko ekitaldian ez da zenbatekorik eskualdatu.

Azkenik, Gipuzkoako tokiko erakundeen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean balore negoziagarrietarako barne hartutako balorazio-arauen arabera, balore horiek erosketa-prezioan baloratu behar dira, eta dagokien hornidura zuzkitu erosketa-prezioaren eta kontabilizatutako finantza-ibilgetuari balorazio-irizpide arrazionalak aplikatzearen emaitzazko zenbatekoaren artean dagoen aldearen zenbatekoaz. Ildo horretan, Udalak 1.238.619 euroko balio-galeraren ondoriozko hornidura zuzkitu du.

3.3. FUNTS PROPIOAK

Balantzearen kapitulu hau osatzen duten kontuen saldoen xehetasuna honako hau da:

-Eurotan-		
Funts propioak	2015/12/31	2014/12/31
Ondarea	70.213.738,00	70.213.738,00
Lagatako ondarea	(4.080.075,62)	(4.080.075,62)
Erabilera orokorrerako emandako ondarea	(38.231.704,42)	(38.231.704,42)
Itxitako ekitaldietako emaitza positiboak	132.309.512,49	124.505.387,68
Galdu-irabaziak	7.631.434,53	7.804.124,81
Funts propioak guztira	167.842.904,98	160.211.470,45



Balantzean, 2000ko ekitaldian inbentarioa egin baino lehen erabilera orokorrerako ustez emandako ondasunen osotasuna jasotzen da, zero balioaz.

Atxikita emandako ondasunen balioa edo ustiatzeko nahiz erabiltzeko lagata emandakoen balioa saldo zordunarekin erregistratu behar dira balantzearen pasiboko "Funts propioak" kapituluaren "Atxikitako ondarea" eta "Lagatako ondarea" epigrafeetan, hurrenez hurren. Guk dakigunez, ez da atxikitako edo lagatako ondasunen inbentariarik egin. Hori zuzentzeak honako eragin hau izango luke 2015eko abenduaren 31ko egoera-balantzean: "Atxikitako ondarea" eta "Lagatako ondarea" epigrafeen saldoak inbentario horren emaitzazko balioan gehitzea; eta atxikita edo lagata emandako ondasuna ibilgetuan barne hartuta zegoen ala ez kontuan izanda, "Ibilgetua" kapituluaren saldoa zenbateko berean gutxitzea, edo bestela, "Ondarea" epigrafearena gehitzea.

Bestalde, atxikita jasotako ondasunen balioa edo ustiatzeko nahiz erabiltzeko lagata jasotakoen balioa saldo hartzekodunarekin erregistratu behar da balantzearen pasiboko "Funts propioak" kapituluaren "Atxikitako ondarea" eta "Lagatako ondarea" epigrafeetan, hurrenez hurren. Guk dakigunez, ez da atxikita edo lagata jasotako ondasunen inbentariarik egin. Egoera hori zuzentzeak eragina izango luke 2015eko abenduaren 31ko balantzean. Izan ere, inbentario horren emaitzazko balioan gehituko lirateke "Atxikita jasotako ondarea" eta "Lagata jasotako ondarea" epigrafeen saldoak eta zenbateko berean gehituko litzateke "Ibilgetua" kapituluaren saldoa (ikus *Azterketari buruzko txostena*).

Aurreko paragrafoen arabera, honako hau ***gomendatzen dugu***:

⇒ Atxikitako edo lagatako ondasunen inbentarioa egitea, baita atxikita edo lagata jasotakoena ere, eta inbentario horretan esleitutako balorazioak kontabilitatean sartzea.



3.4. JASOTAKO MAILEGUAK

Eusko Jaurlaritzak laguntza batzuk eman zituen, mailegu gisa, epe luzera eta interesik gabe: 2004an 47.271 euro eta 2007an 51.243, GS3-Gecotor-Sabatenea eraikinean industria-aurriak eraisteko eta Udalak kapitaleko diru-laguntza gisa (sarrerak) erregistratu zituen zegozkion aurrekontuetan.

Hitzartutako baldintzen arabera, zor den kopurua gehienez ere sei hilabeteko epean itzuli beharko litzateke, urbanizazio-proiektua onartzen denetik hasita. Baldin eta eraikuntzarik eta urbanizaziorik egingo ez balitz, gehienez ere hamar urteko epean itzuli beharko litzateke, hitzarmena sinatzen denetik (2004/12/09 eta 2007/12/28) aurrera.

2014ko ekitaldian, Udalak ez zuen aipatutako laguntzekin erlazionatutako gasturik egin, eta, beraz, aipatutako baldintzetan adierazitakoa betetzeko, mailegatutako kopuruetako lehenengoa itzuli zuen, 47.271 euro, eta sektore publikoko maileguen amortizazio gisa erregistratu zuen.

Zor den beste kopurua, 51.243 euro, 2017ko ekitaldian itzuliko da.



ERANSKINA:

IKUSKATU GABEKO ONDARE KONTUEN AZTERKETAN APLIKATUTAKO PROZEDURAK

Erakundeko langileei egindako galderak eta 2015eko abenduaren 31ko balantzearen eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontuaren azterketan erabilitako prozedura analitikoak honako hauek izan dira funtsean:

- Erakundeak aplikatutako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei buruzko galderak.
- Erakundeak transakzioak erregistratu, sailkatu eta laburtzeko erabilitako prozedurei buruzko galderak.
- Ohiz kanpokoak diruditen zerrenda eta kontu-sail indibidualak identifikatzeko diseinatutako prozedura analitikoak.
- Balantzearen eta galdu-irabazien kontuaren irakurketa; eskura dagoen informazioan oinarrituta, horiek Kontabilitate Printzipio Publikoen arabera prestatu diren ala ez jakiteko.